



AIERBE ERAUSKIN familia

AIZPORRA Urreta auzoko baserria da. 1915ean Arosi zuten.

Larraitzerako bidea gerra ondorenean bukatu zuten, lauzpabost urtez geldi egonda, baina etxerainokoa 1985ean egin zuten. Baserri inguruko baso, zelai eta soroen izenen artean dauzkagu *Kapilloi*, *Gugañe* eta *Barruti txiki*.

Joan Bautista Aierbe *Aizporrara* ezkondu zen Josefina Antonia Erauskin, bertako alabarekin. Joan Bautista *Mamune* ondoko *Etxeberri* baserrikoa zen, gaur egun borda bezala erabiltzen denekoa. Zazpi seme-alaba izan zituzten: Anttoni, Joana Frantziska, Prontxio, Euxebi, Salustiano, Maria eta Fermin.

Herrira edo eskolara ordubeteko bidea zuten oinez. *Zubiarren* ibili zen eskolan Fermin, maisu bizardunarekin. Euskaraz ez zekiena eta *aparato* gaiztoa zela dio Ferminek, egurra ematen zuela. Zazpi urterekin hasi eta bederatzi urterekin gelditu zen. Goizeko bederatzietatik arratsaldeko lauak arte egoten ziren eskolan. Bidea zatak jantzita egiten zuten eta neguan elurretan eta izotzetan jaisten zirenez, egun osoa galterdi bustiekin pasatzen zuten. Bazkaltzeko, ontza bat txokolate eta ogia erosteko hamar xentimo izaten omen zituen. Hala ere, *Zubiarren* ibiliari esker ikasi omen zuen Ferminek ikasi zuena.

Baserritik ateratzen zuten bizimodua. Behiak eta txekorrak zituzten, zortzi-bederatzi buru eta txerriak. Etxerako egiten zituzten garia, artoa, babarruna eta patata. Inork ez zuen fabrikari lanik egin baina senideak oso gazterik atera ziren etxetik morroi eta neska. Batzuk Abaltzisketara artzaintzara; beste bat

Donostiako *San Inazio* klinikara... Fermin igeltseritzan aritu zen eta Salustiano, etxean gelditu zenak, hamar urte egin zituen baserrian eta beste sei urte soldaduskan, gerra garaian.

Esne partitzen ere ibili zen Fermin. Bizikletan erremolkea jarri eta 30na litroko bi marmita eramaten omen zituen Donostiako *San Inazio* klinikara. Trenez Ategorrietaraino joan, han jaitsi eta handik oinez klinikara, esku banatan marmita hartuta. Beste sei urtez ere ibili zen esnezale kamioiarekin. Lan asko eginda gero, beste lagun batekin etxe bat eraiki zuen Ordizian.

Informazio emailea:
Fermin Aierbe



Joan Bautista Aierbe eta Josefa Antonia Erauskin (aita-amak).



Fermin, Salustiano, Euxebi, Joana Frantziska eta Anttoni (seme-alabak), Prontxio eta Maria falta dira.



Ferminen familia.



Salustianoren familia. Maritxu, Ana Mari, Maria Jexux, Pakita / Jexuxa, Salustiano (aita-amak) / Idoia.